



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 19a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/CCO-00032. Lizarrako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/CCO-00032. Lizarrako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

2024ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarri entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea Lizarrako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

	ORRIALDEA
I. SARRERA	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN.....	5
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	5
VI. LIZARRAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	7
1. GEHIGARRIA. LIZARRAKO UDALA	8
1.1 Informazio orokorra	8
1.2 Egindako jarduerak	10
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	11
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	11
3.1 Langile-gastuak.....	11
3.2 Kontratazio publikoa.....	13
3.3. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	17
3.4 Next Generation funtsak.....	20
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	21
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA.....	23

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea beterik eta 2023ko bere jarduketaprogramari jarraikiz, Lizarrako Udalar langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan 2022ko ekitaldian aplikatzekoak zaizkion zenbait zuzenbide-zertzeladari buruzko fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati-boen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzak jakinarazi egin zitzaizkien Lizarrako jadaneko nahiz aurreko alkateei, alegazioak aurkez zitzen.

Ezarritako epea igarota, alegazioak aurkeztu ditu Lizarrako alkate Marta Ruiz de Alda Parla andreak, zeinak txosten honetan jaso baitira, Ganberak horiei emandako erantzunarekin batera.

Lizarrako Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan honen prestaketarako eman duten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitzaren biribiltzea, eta ez datu biribilduen batura.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Lizarrako Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, ordainsarien analisisa eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: kontratazioa zenbateko txikiko araubidean eta kontratu egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak.

Era berean, Udalak emandako datuen arabera, zenbatu egin ditugu Next Generation Fundsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

Fiskalizazioaren norainokoa dagokie txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure lanaren norainokoa ez dira sartzen Udalaren erakunde autonomia eta haren sozietatea.

III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du Lizarrako Udalaren 2022ko ekitaldiko langileriari, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Lizarrako Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jardura aztertuak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzea zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten kontratazio publikoaz bezainbatean, gastuen 1,51 milioitan hauteman ditugu okerrak; hau da, 2022ko gastuen ehuneko 33an, jarraian xeheki azaltzen denez:

- Ikusi dugu ezen gure txosteneko 3.2 gehigarrian zehazturiko zenbait prestaziotan Udalak 842.903 euroko gastua egin zuela 15 kontratistarekin, nahiz eta lizitatu egin beharko ziratekeen, kontuan harturik haiek denboran zehar errepikariak izatea eta/edo haien zenbatekoa.

- Bestalde, Udalak guztira 666.430 euro ordaindu zituen gure txostenaren 3.2 gehigarrian zehazturiko sei prestaziorengatik, zeinen kontratua bere indarraldi amaierara iritsita baitzegoen alde aurretik. Ez dago arrazoi justifikaturik horren lizitaziorik berriro egin ez izateko.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia salbuespenekin adierazteko.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIK

Auditoretzako funtsezko gaiak dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko legezketasun-betetzeari egin diogun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako alderdiengatik izan ezik, erabaki dugu ez dugula gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk eman behar.

VI. LIZARRAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Lizarrako Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, Udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpikorik.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea Udalak 2022ko ekitaldian fiskalizatutako gaietan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta betetzearen fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasuna lortzea esatean ziurtasun maila handia lortzea esan nahi dugu, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti detektatuko duenik ez-betetze aipagarri bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzurraren edo erroreen ondorio izan daitezke, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontrolako organoen fiskalizazio-jardueraren araudi erregulatuarekin bat etorritik, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo erroreen ondoriozko ez-betetze aipagarriak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiek erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzitari oinarria emateko. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzeko arriskua handiagoa da erroreen ondoriozko ez-betetzearen kasuan baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrola dela-eta fiskalizatorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan diren gaiak.

VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileriari, kontratazio publikoari, dirulaguntzei eta iraganeko txostenetako gaiei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza bezala, Ganbera honek gomendatzen du:

- *Kontratazio prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*
- *Urteko zenbatekoa edo, ondoz ondoko prestazioen kasuan, zenbait ekitalditako balio zenbatetsia 15.000 euro baino gehiagokoa duten prestazioak lizitatzea eta adjudikatzea.*
- *GEDEMELSA sozietate publikoa likidatu eta desegitea, haren jardunik eza eta ondoz ondoko galerak direla-eta.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta jaulki da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2023ko abenduaren 21ean

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador


1. GEHIGARRIA. LIZARRAKO UDALA

1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Lizarra Nafarroako Erdialdearen sartaldean kokaturiko udalerrri bat da, izen bereko merindadearen erdian dagoena. 15,39 km²-ko azalera du, eta 13.977 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal antolamendua besteak beste honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura (17 kide), Tokiko Gobernu Batzarra, eta Alkatetza. Horrez gain, 14 informazio-batzorde ditu; horien artean, Kontuen Batzorde Berezia.

Sektore horiek honako hauek osatuak dira:



- Sektore publiko administratiboa: Udala bera eta haren erakunde autonomoa, Julián Romano Musika Patronatua. 2022an, Udalak 129.682 euro bideratu zituen patronatura, transferentzia arrunten bitartez.

- Enpresen sektore publikoa: Udala bazkide bakarra da GEDEMELSA-Lizarraren udal garapen sozioekonomikoa kudeatzeko sozietate publikoan.

Udalak bere kontuetan sartuta dauzka aipatu erakunde autonomoarenak. Kontu-hartzailetzak 2022ko urteko kontuez eginiko txostenaren arabera, honakoak dira, 2022ko ekitaldiaren itxieran, datu ekonomiko eta langileriari buruzko datu nagusiak:

- Udala eta erakunde autonomoa

Entitatea	Eskubide aitortuak	Betebehar aitortuak	Langileak, 2022-12-31n
Udala	15.503.013	15.351.803	166
Julián Romano Musika Patronatua	305.274	315.135	16
- Bateratzearen doitzeak	-246.910	-246.910	-
Bateratua, guztira	15561377	15.420.028	182

- Sozietate publikoa

Sozietate publikoa	Negozioen kopuru garbia	Ekitaldiko emaitza	Udal-dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Plantilla 2022, batez bestekoa
GEDEMELSA	-	-494	-	-	35.354	-

2006an eratu zenetik, sozietate horrek ez du inolako jardun ekonomikorik izan. Udalak ez zuen horretara diru-ekarpenik egin 2022an.

2022ko urteko kontuei buruzko oroitidazkian jakinarazten denez, azken ekitaldian sozietateak diru-sarrerarik sortu ez eta ondoz ondoko galerak izan ondoren, sozietatearen ondare garbia jaitsi egin da, 60.500 eurokoa zen hasierako kapitaletik 35.354 eurora. Kontuen Ganberak udal honi buruz 2015ean egindako txostenak sozietate hori desegitea gomendatu zuen.

Udalak, halaber, honako mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- Jurrmendiko Mankomunitatea, honako zerbitzu hauek ematen dituena: uraren ziklo integrala eta hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamendua.
- Lizarraldeko Turismo Partzuergoa.

2022ko ekitaldian, erakunde horiei Udalak ekarpenak egiteak 159.136 euroko gastua ekarri zion, xehetasun hauekin bat:

Udalarentzako gastuak 2022an	
Jurrmendiko Mankomunitatea	124.080
Lizarraldeko Turismo Partzuergoa	35.056
Guztira	159.136

1.2 EGINDAKO JARDUERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa			Zeharkako kudeaketa: Zerbitzu-kontrataua	Mankomunitatea
	Udala	EEAA	Enpresa publikoa		
Argiteria publikoa				X	
Hilerria				X	
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea					X
Kale-garbiketa				X	
Uraren ziklo integrala					X
Estolderia					X
Parke publikoa	X				
Liburutegia-ludoteka	X				
Gizarte zerbitzuak	X				
Kirol instalazioak	X			X	
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa				X	
Hirigintza	X				
Udaltzaingoa	X				
Ingurumena	X				
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X			X	
Ikastetxe publikoak mantentzea	X				
Merkatua	X				
Berdintasunaren sustapena	X				
Turismo-jardueraren sustapena	X				
0-3 urtekoen ikastetxeak	X				

2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Foru araudia

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei Buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura gatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.

3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

3.1 LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 7,37 milioikoak izan ziren, ekitaldian sortutako gastu guztien % 48. Honako taulan ematen da gastu horren xehakapenaren berri:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2022
Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	135.925
Behin-behineko langileak	60.800
Funtzionarioen ordainsariak	3.359.442
Lan-kontratudunen soldatak	1.364.912
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	2.447.479
Guztira	7.368.558

Plantilla organikoa

Udalak ez zuen plantilla organikorik onetsi 2022rako. Hori baino lehenagoko azken plantilla organiko onetsia eta argitaratua 2021ekoa zen, nahiz eta Udalak onetsi eta argitaratu egin baitzuen, bai, 2023ko plantilla, 2023ko otsailaren 13an. Une hartan, Udalak 2022ko abenduaren 31ko langile-zerrenda argitaratu zuen.

2021eko plantillaren arabera, 102 lanpostu zeuden. Hona horien nondik norakoak:

Sailkapena	2022
Funtzionarioak	87
Lan-kontratudunak	14
Behin-behineko langileak	1
Guztira	102

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 85 funtzionario-araubidekoak dira, eta ehuneko 14 lan-kontratudun araubidekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako lanpostuak	102
Beteta	59
Hutsik	43
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	42
Bete diren lanpostu hutsak	36
Bete diren lanpostu hutsak (%)	84
Bete gabeko lanpostu hutsak	7
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	16

2022an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 42 hutsik zeuden; horietatik, ehuneko 84 aldi baterako zeuden beteta, eta gainerakoak, ehuneko 16, artean bete gabe. Aldi baterako betetako lanpostuek lanpostu bete guztietatik egiten duten portzentajea lortuz, ratioa ehuneko 38koa da.

Enplegu publikoaren egonkortze prozesuaren azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Udala partzialki atxiki zitzaion horri, Osoko Bilkuraren erabaki bidez. Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Udalak 29 lanpostu egonkortzeko lan publikoaren eskaintza bat (LPE, aurrerantzean) onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 12ko NAO-n argitaratua eta, horrenbestez, araudiak ezarritako epemuga beterik, zeina 2022ko ekainaren 1a baitzen.

- LPE horren aurka bi errekurtsio aurkeztu ziren, bi posturen finkotasuna eskatzeko. Auzitegiek baietsi egin zituzten errekurtsio horiek, eta azkenean, LPEko postu-kopurua 27koa izan zen.

- Aurreko 27 postu horietatik, 24 sartuta daude merezimendu-lehiaketaren hautaketa-sisteman, eta hiru, lehiaketa-oposizioaren sisteman.

- Lagin batean egiaztatu dugu LPE-n sartutako postuek bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.

- Lanpostu horiek betetzeko deialdiak 2022ko azaroaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, foru legeak ezarritakoarekin bat, epemugatzat 2022ko abenduaren 31 zehazten baitzuen.

Gainera, euskara jakiteagatiko merezimendu-balorazioari buruzko bi errekurtsio aurkeztu ziren, aurreko deialdi banaren aurka, horietatik bat turismo, industria eta enplegu teknikari postu baterakoa izanik eta bestea, zerotik hiru urtera bitarteko zentroko jangelako laguntzaile izatekoa. Bi kasuetan, aipatu balorazioa bertan behera utzi zen.

Txosten hau egiteko unean, jada eginda dago merezimendu-lehiaketa, eta kasuko 24 pertsonak izendatuak izan dira. Oposizio-lehiaketako hiru postuak bete gabe daude oraindik, eginkizun baitago kasuko azterketa.

Egonkortze-prozesuaren epemuga 2024ko abenduaren 31 denez, txosten hau egiteko orduan ezin da baloratu legeaz aurreikusitako helburuaren betetzea; hots, aldi baterako kontratuak ehuneko 8ra murriztearena, egiturako postuetan.

Langile-gastuaren egiaztapenak

2022ko urrian 93 pertsonarentzat 209.027 euroko zenbatekoarekin sortzapena izan zuen nominako ordain-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu.¹ Zenbateko horrek hilabete aztertuko nominaren guztizkoaren ehuneko 62 egiten dute.

Aurreko azterketan egiaztatu dugu nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztiak bat datozela plantilla organikoan aurreikusitakoekin, eta pertsona bakoitzari zuzen ordaindu zaizkiola betetzen duen lanpostuaren arabera; dena den, honako alderdi hauek adierazi nahi ditugu:

- Pertsona bat graduagatik eta antzinatasunagatik jasotzen ari den ordaina txikiagoa da beharko lukeena baino.
- Pertsona bat bi bosturtekorengatik ordaina ari da jasotzen, noiz eta bostengatik jaso beharko bailuke, udalean duen antzinatasuna dela-eta.

Egindako lana aintzat hartuz, gomendatzen dugu langileen ordainsarrietan atzemandako okerrak zuzentzea.

3.2 KONTRATAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatik gastu arruntak 4,62 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 30 egiten dute, xehetasun hauekin:

Artikulua	Aitortutako betebehargarbiak, 2022
Errentamenduak eta kanonak	55.178
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	655.244
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	3.799.913
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	5.261
Administrazio publikoek eta beste entitate publiko batzuek eginiko lanak	101.190
Guztira	4.616.787

¹ Honako kontzeptu hauek aztertu ditugu: oinarrizko soldata, mailaren osagarria, gradua, antzinatasuna, berariazko osagarria, lanpostuaren osagarria, lanaldiaren luzapenaren osagarria, eskusibotasun-osagarria, arrisku bereziaren osagarria eta bateraezintasun-osagarria.

2022ko inbertsio-gastuek 1,71 milioi egin zuten. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko 11 egiten du, jarraian azaltzen den moduan banatua:

Artikulua	Aitortutako betebehar garbiak, 2022
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	287.131
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunak lehengoratzeko inbertsioak	315.576
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	213.651
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako lehengoratze-inbertsioa	765.949
Ezin ukituzko inbertsioetan egindako gastuak	92.001
Ondare-ondasunen inbertsioetan egindako gastuak	37.310
Guztira	1.711.617

Gure lana munta txikiko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertzea izan da, bi gastu-kapituluetan. Fiskalizazio-lagina hautatzeko, kontratista guztiak eta haien gastua kuantifikatu ditugu, hala 2. kapitulurako nola 6. kapitulurako, informazioa honako orrialde honetatik aterata:

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunta, guztira	Kontratu Publikoiei buruzko 2/2018 Foru Legearen 71-80. artikuluen arabera izapidetutako gastuak		Faktura hutsaren arabera edo indarreko kontratuetatik gabe izapidetutako gastua		Faktura hutsaren arabera edo indarreko kontratuetatik gabe berrikusitako gastua	
	Kontra-tista-kop.	Zenbatekoa ehunekoa guztizko gastuarekiko	Kontra-tista-kop.	Zenbatekoa ehunekoa guztizko gastuarekiko	Kontra-tista-kop.	Zenbatekoa ehunekoa guztizko gastuarekiko
Kontratistak, 15.000 € + BEZ baino gehiagoko gastua dutenak	35	3.045.420	6	430.977	29	2.614.442
Kontratistak, gastua (3.750 € + BEZ eta 15.000 € + BEZ) dutenak	107	943.142	3	33.909	104	909.233
Kontratistak, 3.750 € + BEZ baino gutxiagoko gastua dutenak	648	628.224	0	-	648	628.224
Kontratistak, guztira	790	4.616.787	9	464.886	781	4.151.901
100	100	100	10	10	90	90
52	68	2.823.940	52	2.823.940	52	2.823.940

Inbertsioetako gastua	Kontratu Publikoiei buruzko 2/2018 Foru Legearen 71-80. artikuluen arabera izapidetutako gastuak		Faktura hutsaren arabera edo indarreko kontratuetatik gabe izapidetutako gastua		Faktura hutsaren arabera edo indarreko kontratuetatik gabe berrikusitako gastua	
	Kontra-tista-kop.	Zenbatekoa ehunekoa guztizko gastuarekiko	Kontra-tista-kop.	Zenbatekoa ehunekoa guztizko gastuarekiko	Kontra-tista-kop.	Zenbatekoa ehunekoa guztizko gastuarekiko
Kontratistak, 40.000 € + BEZ baino gehiagoko gastua dutenak	8	914.815	7	858.455	1	56.360
Kontratistak, gastua (15.000 € + BEZ eta 40.000 € + BEZ) dutenak	13	406.150	6	205.711	7	200.439
Kontratistak, 15.000 € + BEZ baino gutxiagoko gastua dutenak	79	390.652	0	-	79	390.652
Kontratistak, guztira	100	1.711.617	13	1.064.166	87	647.451
100	100	100	62	62	38	38
8	40	256.799	8	256.799	8	256.799

Lizitazio-prozedurarik edo indarreko kontraturik gabeko gastuak egin dituzten kontratista guztietatik, 2. kapituluaren kasuan hautatutako lagina gastuaren ehuneko 68 da; eta 6. kapituluari dagokionez, aztertutako lagina gastuaren ehuneko 40 da.

Berrikusi ondoren, honako hauek ondorioztatu ditugu:

Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez izapidetutako honako prestazio hauek daude, guztira 842.903 euroko gastua jo zutenak 2022an, zeinen zenbatekoak ekitaldi batean edo batzuetan gainditzen baititu Kontratuari buruzko Foru Legean ezarritako mugak, honela:

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kopuruak	Gastua, 2022 (BEZa barne)
Energiaren eta gasaren hornidura	607	657.960
Telefonia	362	43.904
Sastraka-garbiketak	5	29.908
Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza	1	25.960
Prebentzio-zerbitzuarekiko urteko hitzarmena eta osasun-azterketak	30	23.251
Web-orriaren mantentze-lana eta sare sozialen kudeaketa	11	19.276
Semaforoaren mantentze-lana	12	10.149
Poliziarantzako ekipamendua erostea	14	9.009
Ikuskizunetako laguntza teknikoa	32	8.680
Bideo-akten, kameraren eta transkripzio automatikoaren sistemaren mantentze-lana	15	8.514
Etxebizitzari buruzko aholkularitza juridikoa	11	6.292
Guztira		842.903

Zerbitzu eta hornidura horietako bakoitza kontratista bakarrak eman zuen, salbu eta energia- eta gas-hornidurakoa eta telefonia, zeinak eman baitzituzten lau eta bi kontratistak, hurrenez hurren.

Halaber, energia- eta gas-hornidurari buruz, Ganbera honek azpimarratu nahi du horren lizitazioaren zailtasuna, merkatu-prezioaren gorabeheren ondoriozkoa. Nahiz eta Udalak ez zuen hornidura hau araudiak ezartzen duenaren arabera lizitatu, eskaintzak behintzat lizitatzailer bat baino gehiagori eskatu zizkien.

Ganbera honek nabarmendu nahi du kontu-hartzaileak jadanik eman zuela akats horien berri, egiten dituen urteko txostenetan, kontratazioa berriaz aztertuz, eta horien jakinaren gainean ipini zuela Osoko Bilkura.

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak

Kasu honetan, ikusi dugu azterturiko gastua egokiro izapidetua izan zela, eta ez zuela lizitazio-prozedura baten beharrik.

- Kontratazio hauek argitaratzea

Udalak ez du argitaratzen esleitu diren munta txikiko kontratuen hiruhileroko informazioa, esleipen-hartzailearen eta zenbatekoaren identifikazioarekin.

Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak 808.907 euro ordaindu zituen kontratua epemugaratua zeukaten zazpi prestazioren-gatik, honako xehetasun hauekin:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2022-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratu-amaieraren data (luzapenak barne)
Hiri-garbiketa publikoko zerbitzua	562.931	2.955.390	2017/09/28
Udal aseguruak	142.477	1.453.042	2008/02/20
Argiteria publikoa mantendu, kontserbatu eta konpontzea	33.033	195.445	2017/01/22
Udalaren ardurapeko eraikinen garbiketa arrunta	29.701	29.701	2022/11/19
Udal hilerriaren zerbitzua	27.467	64.089	2020/09/01
Garbitzea komun publikoak, foruen plazako kioskoa, markesinetako eta zubietako kristalak, igogailu panoramikoak, kalea	7.487	7.487	2022/09/30
Igogailu publikoen mant., kontserb., artatze eta konpontzea	5.631	5.631	2022/04/30
Guztira	808.907	4.710.785	

Udalaren arabera, prestazio horiek lizitatu ez izatearen zergatiak askotarikoak dira: udal-aseguruen kasuan, lizitazioa eman gabe geratu izana; lizitatzeko bitartekorik eza; eta abar. Txosten hau egitean, lizitazio-prozedura Udalaren menpeko eraikinen garbiketa arruntaren kasuan baizik ez zegoen hasita.

Ganbera honen iritziz, lizitazioa eman gabe geratu zeneko udal-aseguruen kasuan izan ezik, gainerako prestazioak lizitatu egin beharko ziratekeen.

Aurreko kasuan bezala, kontu-hartzaileak eman zuen jada akats horien berri kontratazioari buruzko bere urteroko txostenetan.

Gure konklusioak kontuan hartuz, gomendatzen dugu munta txikiko araubide berezizko kontratazioaren hiruhileroko zerrenda argitaratzea, araudiak ezarritakoarekin bat.

3.3. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

2022an, transferentzia-gastuak 1,38 milioikoak izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko bederatzi egiten du, honela zehazturik:

	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Erakunde autonomoi	129.682	-
Toki entitateei	144.020	-
Enpresa pribatuei	273.898	82.202
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundei	752.456	-
Guztira	1.300.055	82.202

Dirulaguntza-plan estrategikoa

Udalak ez zeukan 2022ko ekitaldirako dirulaguntza-plan estrategikorik. 2023 eta 2024rako, ordea, onetsi zuen. Plan horren edukia aztertu dugu eta uste dugu arrazoizkoa dela eta araudian ezarritakora egokitzen dela.

Dirulaguntzen lagin baten azterketa

Udalak emandako informazioaren arabera, 393.111 euro eman zizkien zuzenean 42 onuraduni, jarraian zehazten denez:

Onuraduna	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak, 2022
Ostalaritza-elkartea, Erdi Aroko astea eta antzinako azokak	85.565	85.565
Lizarrako txirindularitza-kluba	47.000	47.000
Egapeludos elkarte	35.000	35.000
Izarra kluba (instalazioak)	22.500	22.500
Herriko zaindariaren jaiak (zazpi onuradun)	18.140	17.689
Hitzarmenak gaiteroekin (bost kontratista)	16.160	16.160
San Miguel kluba (instalazioak, tarifa)	20.000	15.672
Donejakue Bidearen lagunak elkarte, aterpetxea mantentzea	15.000	15.000
Lizarrako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Elkarte	12.300	12.300
EGA erretirodunen, pentsiodunen eta alargunen elkarte: jarduera-defizita	10.000	10.000
La Bota lagunartea, Jolas- eta Kultura-elkartea	8.500	8.500
San Andres lagunartea	8.500	8.500
Erraldoien eta Kilikien Konpartsa Elkarte	7.000	7.000
Lizar trial-kluba, telebista, kopa	9.000	7.000
Ereintza abesbatza	6.410	6.410
Ikastetxeetako kirol-instalazioen erabilera (bi kontratista)	3.800	6.395
Ongintzako Peñaguda jolas-elkartea	7.515	6.134
Lizarrako txirindularitza-kluba: emakumezkoen txirindularitza-proba	6.000	6.000
Nafarroako BTT Txirindularitzako Kirol-kluba	6.000	6.000
Bilaketa-UMAFY dirulaguntza	5.900	5.900
Aita Hilario Olazaran txistulariak	5.610	5.610
Estellerriko emakume-biltzarra	4.500	4.500
Euskara sustatzeko jard. elk. hitzarmena (bi kontratista)	4.000	4.000
Ibai-Ega Dantza taldea	3.845	3.845
Larraiza Dantzari taldea	3.845	3.845
Lizarrerriko Ikerketa Gunea	3.455	3.455
Lizarrako txirindularitza-kluba: Cirilo Zunzarren txirindularitza-proba	3.000	3.000
Euskal-nafar Trenaren Bide Berdearen elk. antzez.	3.000	3.000
Fanfarre Alkaborua elkarte	2.880	2.880
Donejakue Bidearen Lagunak, Jakuetar Azterlanen Zentroa	2.650	2.650
Garean Elkarte-euskarazko irakurketaren sustapena	2.400	2.400
Estellerriko artisauen kolektiboa	1.710	1.710
Puyko Ama Birjina-San Andres dantza-taldea	1.260	1.260
Lizarra Ikastola Sozietate Kooperatiboa	1.005	1.005
Lizarrako Festa Giro Taldea elkarte	1.000	1.000
Hodeilargi elkarte, gaixotasun arraroen bideoa	1.000	1.000
San Pedro la Rua bizilagun-elkartea	-	670
San Migel auzoko bizilagun-elkartea	-	670
Ongintzako Peñaguda jolas-elkartea	-	600
los Estellicas rondalla	585	585
Lizarrako Arriano Juaniz auroroak	400	400
Eusko Ikaskuntzaren hitzarmena	300	300
D. B.ren Lag. Elkartearen 60. urt. jard.	5.000	-
Guztira	403.675	393.111

Honako lagin hau aztertu dugu:

Onuraduna	Zenbatekoa, 2022
Ostalaritza-elkartea, Erdi Aroko astea eta antzinako azokak	85.565
Lizarrako txirrindularitza-kluba: XXIII. Miguel Indurain Sari Nagusia	47.000
Egapeludos	35.000
Izarra kluba	22.500
Herriko zaindariaren jaiak (zenbait onuradun)	17.689
Guztira	223.914

Aurreko azterketan egiaztatu dugu ezen, orokorrean, gastuak baimenduta, kontu-hartzaileak ikusita eta justifikatuta daudela, eta horien onespina eta ordainketa edo, kasua bada, itzulketa, egin zela horiei buruzko araudiak ezarritakoari jarraituz. Halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Egapeludos elkarte bat da, animalia abandonatu edo galduak jaso, eduki eta mantentzen eta katu-koloniak kudeatzen diharduena. Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen 15. artikulua araberera, jarduketa horiek udalaren esku-menekoak dira, nahiz eta, ezartzen duenez, zeregin hori animalien babes eta defentsarako elkar-teekeko itunen bitartez bete daitekeen.

2021ean elkarte horrek bere zerbitzuak eskaini zizkien administrazioei. Elkarte horren gastu eta diru-sarreraren 2022ko zerrendan jasotzen denez, ekitaldi horretan elkarteak 28 udali eman zizkien bere zerbitzuak. Bere jarduera aurrera eramateko, elkarte horrek berriaz proiektu honetarako eratu den sozietate bat kontratatzen du, zeinak gauzatzen baitu diruz lagundutako jardueraren ehuneko 100.

Sozietate horrek ordaintzen ditu hornitzaileen fakturak, barne hartuta kasuko albaitaritza-zerbitzuak, eta geroago horiek elkarteari kobratzen dizkio.

Dirulaguntzarako frogagiri gisa elkarteak Udalarari aurkezten dizkion fakturen kontzeptua da "Animalia-zerbitzua, Lizarrako Udala", animalia tratatuen kopurua edo horiek behar izandako arretak zehaztu gabe. Halaber, ekitaldiaren amaieran elkarteak bere kontuak aurkezten ditu, bere defizita justifikatzeko eta dirulaguntzaren gainerakoa jasotzeko.

Udalaren eta elkartearen artean sinaturiko hitzarmenean ezartzen denez, baldin eta jardueraren ehuneko 100 azpikontratatu egiten bada, lanak elkarteari fakturatzen dizkion enpresaren diru-sarrerara eta gastuak justifikatuko dituen kontu bat erantsi behar da. Dokumentazio hori, bere horretan, ez da aurkeztu, ezen aurkezturiko fakturek ez dute animaliarik identifikatzen, ez eta animalia horiek zein udali dagozkion ere; eta arreta orokorrak dira, udal bakoitzari gastuaren zer zati dagokion identifikatzeko modurik ematen ez dutenak.

- Udalaren eta Lizarrako Txirrindularitza Klubaren artean sinaturiko hitzarmenean ezartzen da kluba behartuta egonen dela diruz laguntzen den jarduerarekin zerikusia duten gastuen eta diru-sarreraren justifikaziorako kontua aurkeztera. Aipatu klubak gastuei buruzko informazioa baino ez du aurkeztu.

- Azterturiko dirulaguntzak ez dira argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

Egindako azterlana kontuan hartuta, hauxe gomendatzen dugu:

- *Egapeludos elkarteari exijitzea bete ditzala justifikazio-betekizunak, modua emanen dutenak identifikatzeko ea haren gastuaren zer parte dagokion Udalarari.*

- *Lizarrako Txirrindularitza Klubari exijitzea aurkez dezala diruz lagundutako jarduerak egiteko jasotako diru-sarreraren justifikaziorako kontua.*

- *Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*

3.4 NEXT GENERATION FUNTSAK

Europar Batasunak erabaki zuen 750.000 milioi euro bideratzea estatu kideen multzoari, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertzeari bultzada emateko.

2021-2022 epean, udalak 13.378 euro jaso zituen, eta 50.688 euro gastatu zituen bi proiektutan, jarraian xehakatzen den bezala:

	Aitortutako Betebehar Garbiak, 2021	Aitortutako Betebehar Garbiak, 2022	Guztira, 2022/12/31n
Modernizazio digitala	846	4.842	5.688
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	-	45.000	45.000
Ibilgailu elektrikoa erostea	846	49.842	50.688

	Aitorturiko Eskubide Garbiak, 2021	Aitorturiko Eskubide Garbiak, 2022	Guztira, 2022/12/31n
Modernizazio digitala	-	13.378	13.378
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	-	-	-
Ibilgailu elektrikoa erostea	-	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak, guztira	-	13.378	13.378

Funtsen denboratasuna 2026ra bitartekoa da. Urte horretan proiektuek amaituta beharko dute egon. Modernizazio digitalerako proiektuan, Udalak aitorturiko diru-sarrerak handiagoak dira egoniko gastuak baino. Bestetik, ibilgailu elektrikoari dagokionez, Udalak jadanik erosi du, eta 2022ko abenduaren 31n jasokizun zeuden horretarako funtsak.

Diru-sareren eta gastuen arteko alde horri dagokionez, ikusi dugu Udalak doitu egiten dituela kasuko finantzaketa-desbiderapenak, hala aurrekontu-emaitzan nola diruzaintzako gerakinean.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Marta Ruiz de Alda Parla andreak, 52449163-D zenbakiko NANA duenak, alkate eta Lizarrako Udalaren ordezkari bezala, identifikazio fiskaleko P-3109600 A kodea duena, Lizarrako Udalaren langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena dela-eta, emandako epean, honako alegazioak aurkezten ditu:

ALEGAZIOAK**1.- Langileriari buruz.**

Txostenean hauxe adierazten da:

- Pertsona bat graduagatik eta antzinatasunagatik jasotzen ari den ordaina txikiagoa da beharko lukeena baino.
- Pertsona bat bi bosturtekorengatik ordaina ari da jasotzen, noiz eta bostengatik jaso beharko bailuke, udalean duen antzinatasuna dela-eta.

Puntu horiek erregularizatzeko bidean daude.

2.- Kontratazio publikoari buruz.

Munta txikiko kontratuak kontratazio-atarian hiru hilean behin argitaratzeari dagokionez, Udala jadanik hasi da horiek argitaratzen.

Mugaeguneratutako eta lizitatu gabeko kontratuei dagokienez, aipatu behar da honako kontratuetarako lizitazio-prozedurei jadanik ekin zaiela:

- Kale-garbiketa. Enpresa bat kontratatua izan da bideragarritasun-azterlanerako eta lizitazio betekizun tekniko eta administrazioetarako, lizitazioa otsailean edo martxoan argitaratze aldera.
- Udal lokalen garbiketa. Lizitazio-pleguaren prestaketa amaitzen ari da, bai eta atarian 2024ko lehen hiruhilekoan argitaratzeko bideragarritasun-azterlana ere.
- Bideo-akten sistemaren mantentzea. Zerbitzu horrek lotura estu-estu du telefonia mugikor eta finkoko zerbitzuaren, datu-zerbitzuaren eta abarren lizitazioarekin, wifiz funtzionatzen baitu; hori dela-eta, hori ez dago telefonia-zerbitzua esleitu baino lehenago lizitatzerik.
- Telefonia-zerbitzua. Jadanik idatzita daude pleguak, eta horiek onetsi eta atarian argitaratzea falta da. 2024ko lehen hiruhilekoan argitaratuko direla aurreikusten da.
- Aseguru-kontrata: lizitazio berri baterako izapideei berriro hasiera eman zaie. Aurreko lizitazioa eman gabe geratu zen.
- Igogailuetarako mantentze- eta konpontze-lanak. Pleguak idazketa-fasean daude, eta aurreikusten da 2024ko lehen hiruhilekoan argitaratuko direla atarian.
- Garbitzea komun publikoak, foruen plazako kioskoa, markesinetako eta zubietako kristalak, igogailu panoramikoak, kalea: pleguen prestaketa amaitzear dago.

Eginkizun geratuko lirateke:

- Argiteria publikoa mantendu, kontserbatu eta konpontzea.
- Udal-hilerriaren zerbitzua.

Udalak badauka egoeraren berri, baina zerbitzu-emateari kontraturik gabe eutsi beharra sortzen da, hain zuzen, mugaeguneratzea iritsi baino lehen lizitatu ahal izateko ez dagoelako behar adina langilerik.

3.- Dirulaguntzei buruz.

- Egapeludos elkarteari jakinarazi zaio beharrezkoa dela halako fakturak aurkez ditzan non identifikatuta egonen baitira animaliak, zer udaletakoak diren eta zer arreta jaso dituzten.
- Lizarrako Txirrindularitza Klubari jadanik eskatu zaio aurkez dezala jarduerak egiteko jasotako diru-sarreraren justifikaziorako kontua.
- Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzen dira eskaintza publikokoak diren dirulaguntzak, baina ez zuzeneko esleipenezkoak, hori nola egin ez jakiteagatik. Azken horien esleipena argitaratzeko urratsak egiteari ekin zaio.

4.- GEDEMELSA enpresa likidatu eta desegitea.

Udalak proiektu bat eginen du 2024an. Ez bada gauzatzen, desegin eginen da, gastu gehiagorik ez egite aldera.

Hori guztia jakinarazten zaio Kontuen Ganberari.

Lizarran, 2023ko abenduaren 18an

Alkatea: Marta Ruiz de Alda Parla

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiogu Lizarrako Udaleko alkateari aurkeztu dituen alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, zeina behin betiko txosten egiten baita, haiei irizten zaenez ezen egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla eta ez dutela horren edukia aldatzen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

